



**Presio fiskala handiagoa den tokietan hobeto daude ekonomia,
enplegua eta gizarte-kohesioa**

**FISKALITATEA PATRONALAREN ZERBITZURA: PRESIO
FISKALA ZERGATIK DAGOEN EUROPAKO AZKEN POSTUETAN,
ETA ZER DELA-ETA DAGOEN BEHERANZKO JOERAN**

2011ko urriaren 12a

O-SARRERA

ELAk duela gutxi eman zuen argitara foru-aldundien gobernu ekintzarako proposamenak biltzen zituen agiria. Ataletako bat fiskalitateari buruzkoa zen. EAEn aplikatu izan den zerga-politika aztertu eta hainbat proposamen plazaratu genuen. Agiri hartan esandakoa berretsi egiten dugu.

Orain egiten ari den fiskalitatearen inguruko eztabaida dela-eta, oinarrizko puntu batzuk nabarmendu beharra dago, ondorioak behar bezala ateratze aldera. Agiri honetan funtsezko hainbat gai aztertuko dugu.

I- PRESIO FISKALAREN BILAKAERA. HEGO EUSKAL HERRIA ETA EUROPAR BATASUNA

a) EAEko presio fiskala, EBko batez besteko maila baino 9,6 puntu apalagoa

Guztirako presio fiskala administrazioek aberastasun kopuru osotik eskuratzen duten zatia da. Hots, EAEn sortzen diren 100 eurotik zenbat doazen zerga itunduetara (Foru Aldundiek biltzen dituztenak), guztirako gizarte-kotizazioetara (Gizarte-Segurantzako diruzaintzak biltzen dituenak) eta udal zergetara.

Hego Euskal Herriko presio fiskala 2009an (hau da alderatzeko moduko datuak ditugun azken urtea) BPGaren %29,3koa izan zen, Europar Batasuneko txikienetakoa, beraz, guztira batez bestekoa %38,4 izan baitzen. Presio fiskalik handiena duten estatuen artean honakoak zeuden: Danimarka (BPGaren %48,1), Suedia (%46,9), Belgika (%43,5) edota Frantzia bera (BPGaren %41,6).

Ondoko koadroan ikus daitekeenez, EAEko presio fiskala %28,8koa izan zen, eta %30,6koa Nafarroan. Presio fiskalaren defizit horrek esan nahi du Hego Euskal Herrian urtean 8.000 milioi euro gehiago bilduko litzatekeela, presioa EB-27ko batez bestekoa adina balitz. (1.500 milioi euro Nafarroan eta 6.500 milioi euro EAEn).

EAEko presio fiskala, aipatutako %28,8a, EBko 27 estatuen azken lekuetan kokatzen da. Atzerago Irlanda, Errumania eta Letonia besterik ez daude.

b) Presio fiskalaren aldea krisi garaian asko handitu da

Patronalak, Nafarroako Gobernuak eta Araba zein Bizkaiko Foru-Aldundiek diote bildu den diruaren galera jarduera ekonomikoaren jaitsierak eragin duela. Haatik, 2007tik hona bildutako diru kopurua jarduera ekonomikoa baino askoz gehiago murriztu da.

Ondorioz, EAEn 2009an zegoen presio fiskala 2007koa baino 4,9 puntu apalagoa zen. Nafarroan jaitsiera hori 1,9 puntukoa izan da. Alabaina, Europar Batasuneko emaitza ez da hori izan. Egia da presio fiskala batez beste jaitsi egin zela bi urte horietan, baina soilik 1,2 puntu (hasierako presio fiskala gurea baino askoz handiagoa izanagatik). Gainera, ez da estatu guztietan gauza bera gertatu, adibidez Alemanian, Italian edo Austrian presio fiskala handitu egin baita, eta Suedia edo Danimarkako jaitsiera oso txikia izan da.

PRESIO FISKALAREN BILAKAERA. 2000-2009

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Danimarka	49,4	48,5	47,9	48,0	49,0	50,8	49,6	48,9	48,1	48,1
Suedia	51,5	49,5	47,5	47,8	48,1	48,9	48,3	47,3	46,5	46,9
Belgika	45,2	45,2	45,3	44,8	44,9	44,9	44,5	44,0	44,0	43,5
Italia	41,8	41,5	40,9	41,3	40,6	40,4	42,0	43,0	42,9	43,1
Finlandia	47,2	44,8	44,7	44,1	43,5	43,9	43,8	43,0	43,1	43,1
Austria	43,2	45,3	43,9	43,8	43,4	42,3	41,8	42,0	42,6	42,7
Frantzia	44,1	43,98	43,1	42,9	43,2	43,6	43,9	43,2	42,9	41,6
Alemania	41,9	40,0	39,5	39,6	38,7	38,8	39,1	39,3	39,4	39,7
Hungaria	39,0	38,2	37,8	37,8	37,4	37,5	37,3	39,9	40,0	39,5
EB-27	40,5	39,6	39,0	39,0	38,8	39,1	39,6	39,6	39,3	38,4
Herbehereak	39,9	38,3	37,7	37,4	37,5	37,6	39,0	38,7	39,1	38,2
Eslovenia	37,5	37,7	38,0	38,2	38,3	38,6	38,3	37,8	37,2	37,6
Luxemburg	39,1	39,8	39,3	38,1	37,3	37,6	35,9	35,7	35,3	37,1
Estonia	31,0	30,2	31,0	30,8	30,6	30,6	30,7	31,9	32,1	35,9
Zipre	30,0	30,9	31,2	33,0	33,4	35,5	36,35	40,9	39,1	35,1
Erresuma Batua	36,7	36,4	34,9	34,7	35,1	36,0	36,7	36,3	37,5	34,9
Txekiar Err.	33,8	34,0	34,8	35,7	37,4	37,1	36,7	37,2	35,5	34,5
Malta	28,2	30,4	31,5	31,4	32,9	33,7	33,4	34,3	33,9	34,2
Polonia	32,6	32,2	32,7	32,2	31,5	32,8	33,8	34,8	34,3	31,8
Portugal	31,1	30,9	31,5	31,7	30,6	31,5	32,3	32,9	32,8	31,0
Nafarroa			33,1	31,9	32,9	33,6	32,5	32,8	30,0	30,6
Esp. estatua	33,9	33,5	33,9	33,9	34,5	35,6	36,4	37,1	33,2	30,4
Grezia	34,6	33,2	33,7	32,1	31,3	31,9	31,5	32,1	31,7	30,3
Lituania	30,1	28,6	28,4	28,1	28,3	28,5	29,4	29,7	30,2	29,3
HEH					29,9	32,6	33,0	33,5	31,2	29,3
Bulgaria	31,5	30,8	28,5	31,0	32,5	31,3	30,7	33,3	32,3	28,9
EAA		32,6	32,8	31,3	31,9	32,6	33,2	33,7	31,6	28,8
Eslovakia	34,1	33,1	33,0	32,9	31,5	31,3	29,2	29,3	29,2	28,8
Irlanda	31,5	29,7	28,4	28,9	30,2	30,7	32,2	31,4	29,7	28,2
Errumania	30,2	28,6	28,1	27,7	27,2	27,8	28,5	29,0	28,0	27,0
Letonia	29,5	28,5	28,3	28,5	28,5	29,0	30,4	30,5	29,1	26,6

Iturria: Eurostat eta datu propioak.

Honek esan nahi du EAEn kasuan presio fiskala 2009an 2007ko bera izan balitz urte hartan 3.200 milioi euro gehiago bilduko zatekeela. Hots, jarduera ekonomikoaren jaitsierarekin, 2007ko presio fiskalari eusteko 3.200 milioi euro gehiago bildu behar ziren. Kopuru horrekin Eusko Jaurlaritzaren eta Foru-Aldundien defizit

guztia kitatu zitekeen, eta diru asko sobera geratuko zen. Beraz, begibistakoa da defizit publikoari heltzerakoan gastua murriztea ez litzatekeela izan behar euskal erakundeek hautatu beharreko bidea.

c) Gure presio fiskala Europako batez bestekoa baino txikiagoa da zerga eta gizarte-kotizazio mota guztietan

Europar Batasuneko estatuen artean alde handiak daude presio fiskala zerga mota desberdinen artean banatzerakoan (zuzeneko eta zeharkako zergak nahiz gizarte-kotizazioak); hori adierazten du ondoko taulak. Eskuragarri zeuden azken datuak, 2009koak, aztertuko ditugu.

EUROPAR BATASUNEKO PRESIO FISKALA: ZUZENEKO ETA ZEHARKAKO ZERGAK ETA GIZARTE-KOTIZAZIOAK (2009)

	Guztira	Zeharkakoak	Zuzenekoak	Gizarte-kontribuzioak
Danimarka	48,1	17,0	30,2	1
Suedia	46,9	19,0	19,7	8,2
Belgika	43,5	13,0	15,9	14,5
Italia	43,1	13,9	15,4	13,8
Finlandia	43,1	13,8	16,5	12,8
Austria	42,7	15,0	12,8	14,9
Frantzia	41,6	15,1	10,2	16,6
Alemania	39,7	12,9	11,0	15,7
Hungaria	39,5	16,6	9,8	13,0
EB-27	38,4	13,1	12,6	12,8
Herbehereak	38,2	12,2	12,1	13,8
Eslovenia	37,6	14,4	8,4	15,0
Luxemburg	37,1	11,9	14,0	11,1
Estonia	35,9	15,2	7,5	13,1
Zipre	35,1	15,3	11,2	8,6
Erresuma Batua	34,9	12,0	16,1	6,8
Txekiar Errep.	34,5	11,7	7,4	15,4
Malta	34,2	14,3	13,9	6,0
Polonia	31,8	13,1	7,5	11,3
Portugal	31,0	12,9	9,1	9,0
Nafarroa	30,6	9,2	9,3	11,5
Espainiar est.	30,4	9,0	10,0	12,4
Grezia	30,3	11,5	8,5	10,4
Lituania	29,3	10,9	7,2	8,5
HEH	29,3	8,6	9,1	10,7
Bulgaria	28,9	15,4	5,8	7,7
EAE	28,8	8,3	9,1	10,5
Eslovakia	28,8	10,6	5,5	12,6
Irlanda	28,2	11,5	10,9	5,8
Errumania	27,0	11,0	6,5	9,4
Letonia	26,6	11,8	6,0	11,6

Iturriak: Eurostat, Eustat, IEN, INE

HEHko presio fiskala **zuzeneko zergetan** BPGaren %9,1ekoa da (%9,1 EAEn eta %9,3 Nafarroan). EB-15 baitan azken postuetan dago, Grezia baita atzerago geratzen den estatu bakarra zuzeneko zergetako presio fiskalari dagokionez. EB-27ko presio fiskala zuzeneko zergetan BPGaren %12,6koa izan da, Hego Euskal Herrian baino 3,5 puntu gehiago, alegia (3,5 puntu EAEn eta 3,3 Nafarroan).


Zeharkako zergei dagokienez HEH azken postuan dago, 8,6 puntuko presio fiskalarekin (BPGaren %8,3 EAEn eta %9,2 Nafarroan), hain zuzen espainiar Estatuaren ostean. EB-27ko batez besteko presio fiskala zeharkako zergetan BPGaren %13,1 izan da, HEHkoa baino 4,5 puntu handiagoa.

Gizarte-kontribuzioetan EB-27ko batez besteko presio fiskala BPGaren %12,8koa izan da, HEHkoa baino 2,1 puntu handiagoa, non presioa BPGaren %10,7koa baitzen (%10,5 EAEn eta %11,5 Nafarroan).

d) Zerga itunduei dagokien presio fiskala EAEn gutxitu egin da 2011n

Zerga itunduak Foru-Aldundiek erabakitakoak edo kudeatutakoak dira (PFEZ, Sozietateen Zerga, BEZ, Zerga Bereziak...). 2010eko diru-bilketaren datuek eta 2011ko aurreikuspen eguneratuek zerga itundu hauen presio fiskalaren bilakaera erakusten digute.

ZERGA ITUNDUEN PRESIO FISKALA EAEn, 2000-2011 (2011 aurreikuspena).



Iturria: Foru-Ogasunak

2010ean euskal ogasunek 11.700 milioi euro bildu zuten, hots, urte hortako zerga itunduen presio fiskala BPGaren %17,8koa izan zen. Bizkaiko Aldundiaren arabera, aurtan bilduko den diruaren aurreikuspen eguneratua EAEko hiru lurraldeetan 11.835 milioi euro da (iaz benetan bildu zena baino soilik %1,1 gehiago). Aurreikus daiteke, beraz, 2011n zerga itunduen presio fiskalak berriro behera egingo duela, BPGaren %17,3raino.

Ondoko taulan ikus daitekeenez, zerga itunduen egungo presio fiskala azken urteetako mailarik apalenetan dago, eta 2007koa baino nabarmen txikiagoa da (BPGaren 3,4 puntu, hots, 2011an 2.328 milioi euro adina).

II- ZUZENeko PRESIO FISKALAREN BANAKETA ERRENTA MOTAREN ARABERA

ELAk behin eta berriz salatu izan du laneko errentek enpresarioen eta kapitalen errentek baino askoz zerga gehiago ordaintzen dutela. Hau frogatuta geratzen da aztertuz gero zuzeneko zergetan bildutako zein zati osatu den lan-errentekin, edota enpresarioen zein kapitalaren errentekin. 2010eko zerga zuzenekin bildutako dirua honela banatu da:

- Laneko PFEZarekin 4.308,6 milioi euro biltzen da, hots, zuzeneko bilketaren %81,9. 2009 urtearekiko pisua 4,6 puntu gehitu da.
- Enpresarioen, profesionalen eta kapitalaren errentek 1.472,8 milioi euro ekarri dute, hots, zuzenean bildu den diruaren %28, 2009an baino 4,6 puntu gutxiago. Bere bi osagaiak aztertuz gero ondorio hauetara iritsiko gara:
 - Sozietateen Zerga bidez 987,1 milioi euro bildu da, aurreko ekitaldian baino %19,9 gutxiago. Honek zuzeneko zergen %18,8 dakar, 2009an baino 4 puntu gutxiago.
 - Enpresarioen, profesionalen eta kapitalaren PFEZaren bidez bildutako dirua 2009 urtearekiko %7,8 jaitsi da, 485,8 milioi euroraino, hots, zuzeneko zergen bidez bildutakoaren %9,2, 2009an baino 0,6 puntu gutxiago.
- Gainerako zuzeneko zergak batuta -523 milioi euro bildu dira. Kopuru hau negatiboa izan da PFEZeko kuota diferentzial garbiaren ondorioz (errenta aitorpenak egiten direnean, ogasunek jasotzen duten diru kopurua itzultzen dutena baino txikiagoa izan ohi da, eta horrenbestez kuota diferentzial garbia negatiboa izaten da).

ZUZENeko ZERGA BIDEZKO DIRU-BILKETA ERRENTA MOTAREN ARABERA. EAE 2009-2010

	2010		2009-2010
	<i>Milioi euro</i>	<i>%</i>	<i>%Ald.</i>
Laneko PFEZ	4.308,6	81,9	3,4
Sozietateen Zerga	987,1	18,8	-19,9
Enpr., prof., kapit. PFEZ	485,8	9,2	-7,8
Enpr., prof., kapital errentak	1.472,8	28	-16,2
Gainerakoak	-523	-9,9	-1,8
Guztira	5.258,4	100	-2,5

Iturria: Foru-Aldundiak

Hortaz, laneko errentek enpresarioen eta kapitalaren errenten hiru halakoa ekartzen dute; honek agerian uzten du errenta mota desberdinen artean presio fiskala zein era injustuan banatzen den. Gainera, alde hori azken urteotan hazten ari da, eta beraz injustizia fiskala areagotu egin da.

III- PFEZEAN AITORTUTAKO BATEZ BESTEKO ETEKINAK

EAEn, laneko errentak dituztenek PFEZean batez beste 21.274,42 euroko errenta aitortu zuten 2007ko ekitaldi fiskalean (2008an egindako aitorpena, eskuragarri dagoen azken datua). Urte hortan bertan, jarduera ekonomiko, enpresarial edo profesionaletako zergadunek urtean batez beste 13.140 euro aitortu zituzten.

Laneko errentek urtean errenta ekonomikoek baino 8.134 euro gehiago aitortu izanak ezin hobeto adierazten du soldatapeko ez diren errentetan dagoen iruzur fiskal itzela.

Baina injustizia larri hori ez da hor amaitzen. 2004 eta 2007 bitartean aitortutako batez besteko errenta 2.284,64 euro handiagoa izan da, eta aldiz jarduera ekonomikoetan aitortutakoa, 1.127,99 euro. Beraz, bien arteko aldea 1.156,65 eurotan gehitu da.

PFEZEAN AITORTUTAKO BATEZ BESTEKO ERRENTA

	2007	2006	2005	2004
LANA	21.274,42	20.642,75	19.778,39	18.989,78
JARDUERA EKONOMIKOAK	13.140,92	12.491,89	12.273,94	12.012,93

Iturria:Foru-Ogasunak

IV- SOZIETATEEN ZERGA

Foru-Ogasunek Sozietateen Zergari buruz informazio gutxi ematen dute. Haatik, zenbait datu esanguratsu jakiteko moduan gara, eta horiek agerian uzten dute zerga honetan dagoen iruzur maila handia (etekinak ezkutatzeko dira); halaber, enpresek aitortzen dituzten etekinetan ordaintzen dituzten zergak tasa nominala baino askoz txikiagoak dira.

a) Enpresen %67,72ak galerak edota 6.000 eurotik beherako etekinak aitortzen dituzte

EAEn, 2007ko ekitaldian, 67.685 enpresak egin zuten Sozietateen Zergako aitorpena. Likidazio-oinarriaren arabera honela sailkatzen dira:

- 25.092 enpresen (%37,07) oinarria negatiboa izan zen.
- 20.747 enpresak (%30,65), 6.000 eurotik beherako oinarria aitortu zuten.
- 10.945 enpresak (guztirako enpresen %16,17ak) likidazio-oinarria 6.000 eta 60.000 euro bitartean zeukaten.
- 6.102 aitortpenetan (%9,01) likidazio-oinarria 60.000 eta 300.000 euro bitartean zegoen.
- 1.531 aitortpenetan (guztirakoen %2,26an) likidazio-oinarria 300.000 eta 600.000 euro bitartekoa izan zen.
- 3.268 aitortpenetan, berriz, (%4,2an) likidazio-oinarria 600.000 eurotik gorakoa izan zen.

**SOZietateen Zergako Aitorpenak.
EAE. 2007**

LIKIDAZIO-OINARRI TARTEEN ARABERA	
Negatiboak	25.092 (%37,07)
0-6.000 €	20.747 (%30,65)
6.000-60.000€	10.945 (%16,17)
60.000-300.000€	6.102 (%9,01)
300.000-600.000€	1.531 (%2,26)
>600.000€	3.268 (%4,82)

Iturria:Foru-Ogasunak

Horrenbestez, egin ziren aitortpenen %67,72etan likidazio-oinarria 6.000 eurotik beherakoa izan zen, eta %83,89etan ez zen 60.000 eurora iritsi. Datuok islatzen dute zerga honetan egiten den iruzur fiskala.

b) Zerga honetako benetako tasa nominala baino askoz txikiagoa da, eta jaisten ari da

Alde handia dago Sozietateen Zergaren tasa nominalaren eta benetan ordaintzen denaren artean (hots, zerga honetan enpresek etekinekiko kitatzen duten portzentaje erreala).

Izan ere, 2007an Sozietateen Zergaren batez besteko tasa nominala %28,4koa izan zen (gogoratu beharra dago egun txikiagoa dela, enpresa handientzat %28ra jaitsi baitzen eta %24ra enpresa txiki eta ertainentzat).

Tasa erreala, ordea, dezente apalagoa da, enpresek hainbat kenkari eta abantaila fiskal baitituzte. Enpresek lortutako etekinen gainean ordaindutako benetako tasa batez beste %15,4koa zen. Beraz, portzentajea bi urtetan bi puntu jaitsi da, tasa nominala bezalaxe.

BATEZ BESTEKO TASA NOMINAL ETA ERREALA

	2005	2006	2007
Batez besteko tasa nominala	30,5	29,4	28,4
Batez besteko tasa erreala	17,5	17,1	15,4

Iturria:Foru-Ogasunak

V- ONDORIOAK

Gaurko egoera ekonomikoan inoiz baino behar handiagoa dago fiskalitateari buruzko eztabaida medio EAEn eta Nafarroan aplikatzen diren zerga-politikak goitik behera alda daitezen. Eztabaida honi buruz ELAk honako iritzia du:

- Gizartearen parte-hartzerik ez dago erreformak proposatzen direnean. Halakorik plazaratu duenean, inongo Foru-Ogasunak ez dio bide eman eztabaida sozial eta sindikalari.
- Kezkatzekoa da zenbait agintarik behin eta berriz esatea aldaketak egiterakoan Zerga Koordinaziorako Organoan adostasuna beharrezkoa dela. Finkatu diren posizioak ikusirik, adostasuna proposamen politikoei gailentzeak esan nahi du baztertu egiten dela fiskalitatean sakoneko aldaketak egiteko aukera.

Txosten honetako datuek gure sistema fiskalari buruzko ondorio garrantzitsuetara eramaten gaituzte:

- Presio fiskala Europakoa baino nabarmen txikiagoa da, eta gainera zeharo murriztu da krisiarekin, EBko beste leku batzutan gertatu ez dena.
- Presio fiskalari dagokionez Europar Batasuneko azken postuetan gaude. Presio fiskal arinena duten estatuek pairatzen dute egoera ekonomikorik okerreana; eurek dituzte langabezia tasarik handienak, eta gastu publikoa murriztuz doikuntzarik antisozialenak ezartzen ari dira. Grezia, Irlanda, Espainia edota Portugal daude egoera honetan.
- Presio fiskalaren aldea zuzeneko zein zeharkako zergetan eta gizarte-kotizazioetan dago. Guztietan ere Europako batez bestekoaren azpitik gaude.
- Presio fiskala oso era injustuan banatuta dago, eta euskal ogasunen zerga-politikak errenta altuen, enpresen eta kapitalaren gaineko zama arindu du; honek injustizia are gehiago larritu du.
- Laneko ez diren errentetan iruzur fiskal handia egiten da, eta hau ez da murrizten. Aitzitik, datuen arabera hazten ari da. PFEZeko eta Sozietateen Zergari buruzko datuek horixe adierazten dute.

Horrenbestez, Confebaskek proposatu duena, enpresei zergak jaitea beharrezkoa dela, ez da inondik ere bidezkoa, eta ebidentzia guztien kontra doa. Ez da egia horrela lehiakortasuna hobetzen denik eta kapitalaren ihesa saihestuko denik. Aitzitik, egia da egungo zerga-sistemaren egitura eta injustizia, baita eragiten dituen ondorio kaltegarriak ere, agintariek patronalari men egin izanaren ondorio direla.

ELAk biltzen den dirua gehitzea proposatzen du, presio fiskala errenta handiei eta kapitalari gehituta; horretarako beste batzutan aipatu izan ditugun tresnak daude: iruzurraren jazarpena, PFEZa progresiboagoa egitea, Sozietateen Zergaren tasa handitzea, Ondasunaren gaineko Zerga berrezartzea, etab. Hor ditugu 2011ko irailaren 9an Foru-Ogasunei bidali genizkien proposamenak.

Orain ekonomia suspertze aldera gastu publikoa gehitu beharko litzateke, gizarte-babesari dagokionez; zerga bidez biltzen den diru kopurua gehitzea gastu horren onerako litzateke, eta administrazioaren birbanatzeko funtzioa bultzako luke.